

# UDAL FRONTIA

**Instalazio hauek, batez ere, edozein pilota-modalitate burutu ahal izateko pentsatuta daude. Hala ere, eta salbuespen bezala, egoki irizten zaion baimendutako ekintzak burutu ere ahal izango dira.**

Instalazioetako erreserba egiteko, tasa bat ordaindu behar da alokairu gisa eta beste bat argiagatik beharrezko kasuetan hala eskatuko balitz. Halaber, abonatuak ez direnek instalazioaren erabileragatik indarrean dagoen osagarria ere ordaindu beharko dute.

Pilota kirola bultzatzen jarduten diren Klub eta erakundeen eskakizunak beteta, klub eta erakundeentzako arautegi honetan indarrean dagoen arauaren arabera, pilotalekua eta squasa honako era hauetan aloka daiteke:

1.Hilabete osorako, hori nahiko luketen erabiltzaile guztien artean zozketa eginez.

Zozketa, eskatutakoaren aurreko hilabeteko hirugarren larunbatean egingo da beti, arratsaldeko bostetan, Informazioan (Pilotaleku tabernan). Astean ordu bete besterik ezingo da alokatu eta erreserba egiten den momentuan bertan ordaindu beharko da. Zozketan bidea orduak esleitu ondoren:

2.Zazpi egun aurretik, gehienez ere, leku berean, libre geratu diren pistak alokatu ahal izango dira, erabiltzaile bakoitzeko lau ordu, gehienez ere.

3.Egunerako bertarako, leku berean, libre dauden nahi beste ordu alokatu ahal izango dira.